

**DEBA**  
Hiriko Udala  
(Gipuzkoa)

**DIRUBILKETA**  
**FAX:943192894**



Ayuntamiento  
de  
**DEBA**

**RECAUDACION**  
TELEFONO 943608039

### **IRAGARKIA**

2009ko Ekonomi Jardueren gaineko zergari dagokion Padroia onartuta , jendaurrean ipintzen da, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauren 14.1 atalak xedatutakoarekin bat etorritz, honako arauei jarraiki:

- a) Ikusgai dagoen lekua: Errenta eta Exakzio Bulegoa.
  - b) Aztertze epea: Hilabete, datatik-datara, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuta.
  - c) Desadostasuna adierazteko epea: hilabetekoa, b) atalean adierazten den moduan, birjarpen errekurtsua tarteratuz.
  - d) Errekurrizten zaion organoa: Gobernu Batzordea.
  - e) Erreklamazioak aurkezteko tokia: Udaleko Sarrera Erregistroa, bulego orduetan.
  - f) Errekurtsua jartzearen eraginak: Aipaturiko Foru Arauren 14.artikuluko 2. zenbakian xedatutakoak.
- Deba, 2.009ko irailaren 30a. Jesus Maria Aguirrezabala Goitokia, Alkatea.

### **EDIKTUA**

Urriaaren 1etik Azaroaren 10era dauden lanegunetan, biak barne, 2.009ko Ekonomi Jardueren Zergari dagozkion ordainagiriak, kobratuko dira, borondatezko epean.

Aurtengo irailaren 10 baino lehen helbideratutako ordainagiriak bankuaren edo aurrezki kutxaren kontu korrontetik kobratuko dira zuzenean, 2.009ko urriaren 20an.

ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunean

Helbideratu gabeko ordainagiriak zergadunak adierazitako zerga helbidera bidaliko dira uztailean zehar. Ordainketa entitate laguntzaileen bidez (banku, aurrezki kutxa , kreditu cooperativa eta Dirubilketako bulegoan) egin beharko da, eta horretarako ordainagiria aurkeztu beharko da.

Urriaren 20a iritsi eta zergadunak ez badu ordainagiria etxean jaso, hurrengo bulego hauetako edozeinetan eskatu beharko du Debako Zerga Bulegoa : Portu zb 1

Borondatezko kobrantza epealdia amaitu eta zergadunek zorrak ordaindu ez badituzte, zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituiko dira, eta epe exekutiboko errekarquak, berandutza interesak eta, hala badagokio, kostuak sortuko dira.

Errezibo hauek borondatezko epean ordaindu ahal izango dira Udaletxeak beheko solairuan duen Idazkaritzan, astelehenetik ostiralera, 8,30etatik 13etara.

Edozein argibiderako, dei 943.60.80.39 telefonora, hau da, Udal Dirubilketa Zerbitzura.

Deba, 2.009ko irailaren 30a. Jesus Maria Aguirrezabala Goitokia, Alkatea.